

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Lizaur kalia kotxe barik

Azelakotxe aldia, ezta? Urte askotxo pasau dira, egixa. **Lizaur kalia** moldaiten ebiltzen artian: hasierako etxe-multzo batzuk jasota edo jasoten; beste batzueiri laister ekingo osten. Orduko tren-estazifotik begiratuta, kaliaren eskumako aldiaren agiri dan eraikiña egin euen **lehenengo 1957xan**, **Altunatarren** familixiaren seme-alabentzako. Ezkerretara ikusten dogun pisutako etxe bakartixa **Oñatiko kontzejuaren** aginnduz modutu zan **1959-1960xan**: haren beheko plantara aldatu zittuain ordura arte Kale Zaharreko botika gaiñian egozen **telefono publikuaren instalaziñuak**; hango etxe-bizitzak, barriz, udal langillendako izan ziran. Telefonikiaren lekuan umiak Ludotekia dakoi aspalditxuan.

Ondo erreparau ezker, telefono-etxe hori zihero akabo barik daguela konturatuko zarai. Horrek erakusten dosku **argazkixa noizkua dan: 1960. urtekua**, hain zuzen be. Berandu barik etorri ziran hurrengo etxe-illarak be: Telefonikiari erantsita, **1961etik aurrera Cegasa** enpresako enpliauentzat egin ziranak, eta zubixaz bestaldeko lehenengo multzoa, orain etxepeian autoeskolia dakona; horren ondorengiak, Arrazolarren etxe pareraiñokuak, **1972xan** eraiki ziran. Fotografixan ikusten ezpada be, esku-makaldian, Kale Zaharreko kantoian, beste pisu-pillatxo bat jaso zan, **Largoneko eta Abaunzen etxe zahar bixak bota eta kalia zabaldu ondoren**.

Trenari eta trenbidiari **dozenerdi urte** pasatxo geraketan xaten, 1967ko Gabon Zahar egunian betiko kendu zittuain arte. Gerora, dakitzuenez, **estaziñua posta-etxe** bihurtu da. Eztago, jakiña, kuartel barrixaren arrastorik, hurrengo hamarkadan jaso zalako. Agustiñuen komentuak eta eliziak kanpotik eztakoi, itxura batian, aldaketa haundirik. Torrealdian barriztau bariko **Zumeltzegi** torria, **Osasun-villa** txaleta eta erre aurreko **Torretxebarri** baserrixa ikusi geinke. Dana dala, deigarixena orduko **lasaitasuna** dogu: **oiñezkuak trankil kale erdittik, automobil barik**.

Eta zergatik jarri xakon kale zabalorri Lizaur izena? Ba, **Damian Lizaur Lasa** (1885-1956) oñatiarra izan zan gure herrixan XX. gizaldixaren lehenengo erdixan **lan ugarixen eta ikusgarrixenak** proiektau eta zuzendu zittuan **arkitektua**. Beste askoren artian, Oñatiko Hirigintza-Plan Orokorra be burutu eben. Kale honen obrak hasteko ziranian **Abadiñon hil zan istripu bildurgarrixan**, bere bi alaba eta taxistiarekin batera, trenak kotxia bete-betian harrapota. Laurak ziran oñatiarrak.

Argazkixa Jose Luis Plazaolak atara eben orain dala 62 urte. Guri Iñigo Arregiren bittartez heldu xaku. Anaje Kortabarriak eta Xabier Zelaiak argibide zihatxak samurtu doskue. Eskerrik asko danoiri!